



SORALUZETKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

SORALUZETKO UDALAREN ETA PIL-PILEAN EUSKALTZALEEN ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA,
"UDALEKU IREKIAK" EGITASMOA DIRUZ LAGUNTZEKO

Soraluzen bi mila eta hogeita lauko maiatzaren 27an.

BILDURIK

Soraluzeko Udaleko Alkatea, Unai Larreategi Azurmendi eta bestetik, Arianne Unamuno Loidi, Pil-pilean Euskaldunon Elkartearen lehendakaria.

ADIERAZI DUTE

1. Hitzarmenaren objektu den jarduera interes publikokoa dela eta Udal aurrekontuan dirulaguntza izendun gisa dagoela aurreikusita.
2. Pil-Pilean Euskaltzaleen Elkarreak Soraluze euskaldunagoa izateko lanean hainbat arlo jorratzen dituela, haur eta gazteen aisialdia delarik horietako bat.
3. Haur eta gazteen artean euskararen ezagutza etengabe hobetu den arren, oraindik hutsune larria dugula erabilera eta hori konpontzeko euskaraz egiteko aukera eskaintzen eta lehenesten duten guneak ugaltu behar direla, esparru ez-formalean ugaltu ere, haur eta gazteek hezkuntza sistemaren barruan dauden bitartean irakaskuntza prozesuaren osagarri izan dadin ezinbestean.
4. Euskararen ezagutza, jarrera eta erabilera areagotzeko ez ezik, Udalekuak moduko jarduerak jarduera egokiak direla administrazioek adin-tarte horietarako definituta dituzten politikak aurrera eramateko, politika horien xedea delarik haurrei modu egokian garatzen laguntzea, haurtzarora berezko balio eta esanahi duen garai gisa bizi dezaten eta beren bizitzaren protagonista, hiritartasun eskubideen subjeto eta komunitateko partaide izan daitezten.

Hori dela eta, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute.

HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarreak antolatzen dituen "SORALUZETKO UDALEKU IREKIAK" jarduerarako dirulaguntza zehaztea da.

HITZARMENAREN IRAUNALDIA

Hitzarmen honen iraunaldia urte batekoa da, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artekoa.

DIRULAGUNTZEN KOPURUA

Hitzarmenaren objektu den jarduera ("Soraluzeko Udaleku Irekiak") aurrera eramateko dirulaguntzaren zenbatekoa 30.000 eurokoa da.



SORALUZKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

UDALAREN BETEBEHARRAK

Udalak, dirulaguntza ematen duen neurrian, honako betebehar hauek izango ditu:

1. Dirulaguntza urtero ordainketa bakarrean emango dio elkarteari, jardueraren proiektua zehazten duen eskaera jaso eta aztertu ondoren.
2. Jarduera aurrera eramateko elkarteak beharrezko dituen lokal eta azpiegiturak elkartearen eskura jarri.
3. Udalak, berezitasunak dituzten familiei diruz lagunduko die, Elkarteak finkatutako kuota ordainketaren zati bat eginez. Horretarako Udalak dagokion prozedurra martxan jarriko du eta horrek Elkartearekin Koordinazioa eskatuko du.

ELKARTEAREN BETEBEHARRAK

Elkarteak, dirulaguntzaren onuradun den aldetik, honako betebehar hauek izango ditu:

1. Jaurduera aurrera eramateko prestatu duen egitasmoa aurkeztu beharko dio udalari. Egitasmoak ondorengoak jaso beharko ditu, besteak beste: proiektuaren nondik norakoa; jasotzaileen adina, datak eta iraupena, tarifak, hezitzaile/ haur ratioak, hizkuntzen kudeaketa, genero berdintasuna bermatzeko neurriak, hezitzaileen lan-baldintzak, hezitzaileen titulazioa, zuzeneko orduen eta prestaketa orduen zehaztasuna, jardueraren helburuak, programazioa egunegun, azpiegitura beharrak, zabalpenerako plangintza...).
2. Hitzarmenean aurreikusitako egitasmoa osotasunean gauzatu beharko du, matrikulak egitetik hasi eta azken memoria entregatu arte.
3. Jasotako dirulaguntza, hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabili beharko du.
4. Jarduera ezagutarazteko erabiltzen duen edozein eratako publizitate eta iragarkitan Sorluze Udalaren laguntza duela adierazi beharko du argi.
5. Jasotako diru-laguntza, hurrengo urteko martxoaren 31a baino lehen justifikatu beharko du, udal ebazpenean eskatzen zaion bezala eta beti ere indarrean dauden udal araudi eta legediaren arabera. Dena den, edozein momentuan ere udalak eskubidea izango du Elkarteari finantzatuko jarduerari loturiko diru-kontuen berri eman dezan eskatzeko.
6. Jardueraren baitan haurrek jasan lezaketzen edozein motatako istripu edo gertakari kaltekorri aurre egiteko jarduera guztia estaliko duen Erantzunkizun Zibileko Asegurua kontratatatu beharko du.



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

HITZARMENA EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

Hitzarmen honetan jasotakoak beteko ez balira, bukatutzat emango litzateke, Udal araudian ezarritakoaren arabera jokatzuz.

Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartek dirulaguntza kontzeptuan jasotako diru-kopuru osoa erabiliko ez balu, dirulaguntzen udal araudian aurreikusitako reintegro espedientea abiatuko litzateke.

Eta horrela jasota uzteko eta euren adostasuna agertzeko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetu dute bi parteeek.

Unai Larreategi Azurmendi
Soraluzeko Udaleko Alkatea

Arianne Unamuno Loidi
Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteko
Lehendakaria